



ZEIN ERAGIKETA EGIN BEHAR DA PROBLEMA BAKOITZEAN?




Iratik pentsatu du etorkizunean bizikletaz egingo duela bidaia 456 kilometrora izango dela, eta 9 egun beharko dituela horretarako. Zenbat kilometro egin beharko ditu eguneko?



Eragiketa:

Auto-lasterketa bateko zirkuitoak 23 km ditu. Hori jakinda, zenbat km egingo ditu auto batek 12 buelta ematen baditu?

Eragiketa:



Auto-lasterketa berdineko zirkuitoan, hau da, 23 km dituen horretan, zenbat buelta eman beharko ditu auto batek, 345 km egiteko?

Eragiketa:

Hiriko autobus-linea batek 25 km-ko ibilbidea du. Zenbat km egingo ditu egun batean 12 aldiz egiten badu bidaia hori?

Eragiketa:



Egunaren amaieran, autobus gidari horrek, 25km-ko ibilbidea egiten duenak, 325 km egin baditu guztira, zenbat bidaia egin ditu?

Eragiketa:

Aimarren 756 euro ditu gordeta 2 euroko txanponetan. Zenbat txanpon ditu?

Eragiketa:



9 laguneko txirrindulari talde batek, 32 botila ur edaten ditu egun bakoitzean. Lasterketak 15 egun irauten badu, zenbat botila ur eraman beharko dituzte?

Eragiketa:



Berotegi batean, 84 patata jaso dira eta seiko sortetan salduko dituzte. Zenbat sorta egingo dituzte?

Eragiketa:



Idoiak 126 kromo ditu eta 3 album ezberdinetan itsatsi nahi ditu. Zenbat kromo itsatsiko ditu album bakoitzean?

Eragiketa:



Nire amak auto bat erosi du 25.000 euroan eta esan diote 12 kuotatan ordaindu dezakeela. Zenbat ordainduko du kuota bakoitzean?



Eragiketa:

Zineman bost areto edo sala daude. Gaur guztira 9.875 pertsona etorri dira. Areto guztiak bete beteak zeuden. Zenbat ikusle egon dira areto bakoitzean?

Eragiketa:

